



Esp. kodea: 2022DPRE0001

Gaia: 2023ko Udal Aurrekontua
Hasiera eguna: 2022/11/30

BARNE ANTOLAKETAREN BATZORDEA
2022-12-07

2023 EKITALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udal gobernua aurkeztutako 2023 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion partidak eta gorabehera nagusien azalpenak emanda, eta, gero, Barne Antolaketaren batzordean adostutako prozesuarekin, aipatu proiektua diktaminatu da Udaleko Osoko Bilkuran gaia jorratzeko.

Gastuen atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan, eta sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

Barne Antolaketaren batzordean aztertu da 2023 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

2023ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **hogeita hemeretzi milioi sei ehun eta berrogeita hamasei mila, zazpi ehun eta berrogeita bost euro eta hirurogeita lau zentimokoa da (39.656.745,64€)**

Aipatutako proiektua aztertu eta gero (partidak, exekuzio araua, eranskinak eta txostenak), Barne Antolaketaren batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, batzordeak aldeko txostena ematen dio proiektuari, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeetako ordezkarien aldeko botoekin, eta EH-BILDU eta PODEMOS-ARRASATE udal taldeetako ordezkarien aurkako botoekin, eta Udaleko Osoko Bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

- 1.- Hasiera batean onartzea 2023. EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA, barne hartzen ditu dokumentu guztiakin.
- 2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkoztat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- 3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.

BATZORDEBURUA

Kodea	K22/06219	Entitatea	ARRASATE/MONDRAGON	
CUDO	000.0055.AAAAX4RS.9.C2bx			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAX4RS9.C2bx			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				